

Isilarazitakoen ahotsa

John Boyne, Luis Sepulveda eta Patrick Suskinden lan baina argitaratu ditu euskaraz Alberdaniak

ARANTZAZU MUÑOA
Donostia

Sona handiko gaur egungo hiru libururik argitaratu ditu euskaraz Alberdaniak argitaletxeak: John Boyneren *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* (*The Boy in the Striped Pajamas*), BERRIAKO Euskara Taldeko Mirentxu Larrañaga Sueskunek itzuli; Luis Sepulvedaren *Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsi zion katuarena* (*Historia de una gaviota y del gato que le enseñó a volar*), Jesus Mari Mendizabal Bizargorri-k itzuli; eta Patrick Suskinden *Perfumea. Hiltzaile baten historia* (*Das Parfum. Die Geschichte eines Mörders*), Miren Arratibelek itzuli.

Ahalik eta zintotasun eta osotasun handienarekin iragana gogora ekarri nahi izan du John Boynek *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa*-rekin: «Jendeari entzunarazi nahi izan dio isilarazi zituzten haien ahotsa, hartaz guztiaz gehiago jakiteko eta irakurtzeko grina sor dadin, eta abagune hartako propagandak eta prentsak zioenaz bestela, behin eta birritan kontaturiko gezurra ez dadin gerta egia maltzurra», azaldu du Mirentxu

Larrañaga Sueskun liburuaren itzultzaileak.

Iaz argitaratu zen eleberria eta sekulako arrakasta lortu du berehala: 17 hizkuntzataraz itzuli dute, hainbat sari lortu ditu eta film bat egin dute hura oinarri hartuta.

Bederatzi urteko mutiko baten ikuspegitik, pertsona nagusien alderdi iluna erakusten du liburuak: «Historiaz eta irudimenaz baliatu da Boyne. Egiantzekotasun agerikoak saihestu nahi izan ditu hala ere, errealtatetik eratorritako egia irudi ez dezan».

IRIBARREZ IRAKURTZEKO. Katu handi beltz eta gizona da Zorbas. Hanburgo portu inguruan bizi da bere kideko lagunekin. Egun batean, kaio bat agertzen da Zorbasen bizitzan, hil zorian, itsasoko petrolio isuri batek kondanatua. Zorbasek hitz ematen dio errun berri duen arrautzatik sortuko den kaiokumea haziko duela eta, zailagoa dena, hegan egiten irakatsiko diola.

Horixe da *Kaio baten historia eta hegan egiten irakatsi zion katuarena* eleberriaren argumentua, gaia berriz, kutsadura. Halaxe adierazi du Bizargorri: «Bada beste gai bat ere, diferentearen estimuaren gainekoa. Diferentea nekezago onartzen dugula erakusten du. Gure taldekoak erraz maitatzen ditugula, baina diferentea maitatzea kostatzen zaigula».

Liburua oso modu arinean eta jolastian dago kontatua, Bizargo-



Iragana gogora ekarri nahi izan du John Boynek *Pijama marradunaz jantzitako mutikoa* eleberrian.



Luis Sepulveda, *Kaio baten historia*-ren egilea.



Perfumea liburu ezagunaren egilea: Patrick Suskind.

rriren ustez, eta gertaera drama bat den arren, umorez zipritindua dago: «Irakurraldi guztian mantentzen da irribarretxo bat. Erraz irakurtzen da, aise». Gozo irakurri zuen berak liburu gaztelaniaz, eta euskaraz hartuko dutenek ere hala irakurtzea nahi du: «Gaztelaniaz tonua zoragarria da eta hori mantendu nahi izan dut. Ea asmatzen dudan».

HILTZAILEAREKIN BAT EGINDA. Orain dela 23 urte argitaratu zen lehen aldiz *Perfumea*. Izugarritzko arrakasta

«Historiaz eta irudimenaz baliatu den arren Boyne, egiantzekotasun agerikoak saihestu nahi izan ditu»

MIRENTXU LARRAÑAGA SUESKUN
ITZULTZAILEA

«Misterioak baino gehiago, gizakiari lotutako hainbat egoera eta jarrerak hartzen dute garrantzia»

MIREN ARRATIBEL
ITZULTZAILEA

lortu zuen berehala eta liburuak salduen bilakatu zen. Orduz geroztik, 40 hizkuntzataraz baino gehiagotara itzuli da. Bigarren susperraldia izan du orain, nobelan oinarritutako filmaren ondorioz.

Eleberri aski ezaguna denez, haren gainean ezer berririk esatea zaila dela onartu du Arratibelek. Baina irakurleari argitu nahi izan dio ez dela misteriozko eleberria, askotan hala pentsatu eta saldu izan bada ere: «Misterioak baino gehiago beste hainbat alderdik hartzen dute garrantzia, gizakiari lotutako hainbat egoera eta jarrerak: bakardadeak, hipokresia, bazterketak, norberak besteen onespina lortzeko duen premia...».

Suskinden irakurlea protagonistaren larruan sartzeko erabilitako maisutasuna azpimarratu du Arratibelek. Eleberriaren hasieratik ez bada ere, ia hasieratik azkeneraino irakurlea protagonistarekin lotuta sentitzen dela iruditzen zaio: «Protagonistak badu bizitzan helburu tinko eta iraunkor bat, eta helburu hori lortzera bideratuta egiten dituen ekintzetan berarekin nolabaiteko konplizitatea sortzen digu, baita ekintzari gaitzesgarritasuna ere».

Perfumea itzultzeko proposamena oparia izan zen Arratibelen zat, baina baita erantzukizun handiko lana ere: «Hasieran zorbioa sentitu banuen ere, plazer hutsa izan da».

Gipuzkoako euskal kantu txapelketa 2007

FINALA: Azaroaren 10ean, 18:00etan, Donostiako Antzoki Zaharrean

berria

Ruper Ordorika
Gaur 22:30etan

Ondarroako Kafe Antzokian

Aurrezaleak: 8.00€ - Txarteldegia: 10.00€ - Zenbat Garen Lagunak: 5.00€
Kafe Antzokia eta Zurrumurru ***** Antolatzailea: Zenbat Gara Elkarte

zenbat gara
Kafe Antzokia